

Betaurrekoak, erlojuak... Internetera konektatzeko sistema berrien lehia



IAZ behin baino gehiagotan aipatu genuen Google saiatuko zela erabiltzaileak Google Glass betaurrekoen bidez internetera konektatzen. Baina iazko bertsio hori gizarteratu baino lehen Googlek beste bertsio bat kaleratu du, eta berriemailek diotenez, oraingo bertsioak aurrekoa baino arrunta goa dirudi.

Aurreko betaurrekoak –ituraz ere– “teknologikoagoak” ziren oraingoak baino. Azken bertsioak normalagoak dira, izan ere benetako betaurrekoak dira. Hau da, batzuek eguzkitik babesteko balio dute, eta beste batzuek ikusmena zuzentzen dute.


Bestalde, lehiakideek uste baino lehen aterako dituzte Google Glassarekin lehiatzeko betaurrekoak. Oraingoan, Samsung enpresa korearrak internetera konektatutako Galaxy Gear erlojua plazaratu du, eta datorren irailean Galaxy Glass betaurrekoak aurkeztuko ditu Berlingo teknologia berrien erakusketan. ■



Smartphoneak, loaren etsaiak

ESTATU BATUETAN egindako azterketa baten arabera, gaueko 9etatik aurrera smartphonearekin aritzeak ondo lo egitea eragotzi dezake. *Organizational Behavior and Human Decision Process* aldizkarian eman dute 250 pertsonaren ohiturak aztertuz egindako ikerketaren berri.

Behatu dutenez, gaueko 9etatik aurrera smartphoneak erabiltzen zizutenengan oso ohikoa zen hurrengo egunean nekatuta egotea, gaizki lo egitearen ondorioz. Smartphoneak –beste gailu batzuek ez bezala– argi urdina emititzen du, eta antza denez argi mota horrek oztopatu egiten du loa errazten digun melatoninaren produkzioa. ■



INTEL FREE PRESS-CC BY

ON ZIENTZIA bideo lehiaketaren laugarren edizioa abian

ON ZIENTZIA bideo lehiaketa antolatu dute, laugarrenez, Elhuyarrek eta Donostia International Physics Centerrek. Lehiaketa *Teknopolis* telebista saioaren bitartez gauzatuko da. Apirilaren 30era arte egongo dazabalik izena emateko epea.

tiki.com/60323
(Euskaraz)

Ipar Amerikako azken hotzaldia, klima aldaketaren ondorioa?

Oraindik bada klima aldaketa ukatzen duenik. Eztabaida horren ildotik, artikulua interesgarri honek aztertu egin ditu urtaril hasieran Ipar Amerika kolpatu zuen izugarrizko hotzaldiaren eta munduan izaten ari diren muturreko beste klima-gertakari batzuk.

tiki.com/60324
(Gaztelaniaz)

Bularretako adimentsuak (ustez)

Oraingutx Japonian merkatura duten bularretakoak bihotz taupadak kontrola omen ditzake, eta berriki AEBetan aurkeztutakoak bularreko minbiziaren arriskuaz ohartarazi gaitzake tenperaturaren gorabeherak monitorizatzeko. Hala diote behintzat bularretakook kaleratu dituzten enpresek; zenbait medikuk zalantzan jarri dute dagoeneko teknologia berri horren efikazia.

tiki.com/60326
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16